

KONTROL MOZIOA

ANTIGUAKO SAN SEBASTIAN MARTIRIAREN ELIZA AZPIKO LOKALEI BURUZKOA

Jon Markel Ormazabal Gaztañagak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, **kontrol mozio** hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2026ko martxoko Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

San Sebastian Martiriaren eliza azpiko lokala auzo erabilera izan zuten aspalditik: zinea, astialdi taldea, katekesia edo AEK-ko euskaltegia... Baina, 2024ko udaberrian, Gotzaindegiak azaldu zuen parrokiak bere lokalak alokatuko zituela zor bati aurre egiteko, eta, beraz, auzoko eragileak hauek erabili ezinik geratuko zirela.

Antiguako Auskalo Astialdi Taldeak erabiltzen zuen batez ere aipatu lokala, eta besteak beste, bertan geratu ahal izateko sinadura bilketa bat abiatu zuen. Bestalde, konponbide bila Gotzaindegiarekin hitz egin zuten, baina diru kontuak medio, ez zieten inolako alternatibarik proposatu. Hala bada, eta elizarengandik alternatibarik jaso ez zutenez, Udalera jo zuten "gure ekintzak egiteko beste lokalen bat eskaintzearen esperoan". Udalaren erantzuna, baina, "Auzoan lokal gutxi eta eskaera asko daude" izan zen.

Gerora jakin zen aipatu lokalak hileta zerbitzuak eskainiko zituen enpresa batek kudeatuko zituela, nahiz eta berriki proiektu hau bertan behera geratu den.

Antiguako auzoak, Donostiako beste auzo askok bezala, azpiegitura eta espazio publiko falta handia du herritarren egitasmoak garatu ahal izateko, eta premiazkoa behar honi erantzutea, halakoetan eta halakoekin ehuntzen eta indartzen direlako komunitateak.

Martxoko Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean zinegotzi ordezkariak esan zuenez Auskalo Astialdi Taldearen lokal beharra aurki konponduko da, eta albiste pozgarria da. Hala ere, San Sebastian Martiriaren eliza azpiko lokala erabiltzen zuten gainerako elkarteak bestelako egoera batean aurkitzen dira oraindik.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari San Sebastian Martiriaren eliza azpiko lokalek lehenago zuten auzo-erabilera berreskuratzeko bitartekotza lana egin dezala Gotzaindegiarekin.

Donostian, 2026ko martxoaren 20an

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga

EH Bildu udal taldeko zinegotzia